



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

► Musika eta Dantza Eskola

Atotxako Zelaia Plaza, 3 | Tel. 943297830 | info@donostiaeuskola.eus  
www.donostiaeuskola.eus | 20012 Donostia / San Sebastián

## DONOSTIAKO UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAN HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

### ***CRITERIOS DE USO DE LAS LENGUAS OFICIALES EN LA ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN***

**AURKIBIDEA**

## INDICE

Or.

<b>Zer dira hizkuntza irizpideak?</b>	5
¿Qué son los criterios lingüísticos?	
<b>Lege markoa</b>	5
Marco jurídico	
<b>Helburu nagusiak</b>	5
Objetivos generales	
<b>Eragin eremua</b>	5
Ámbito de aplicación	
<b>Herritarren hizkuntza eskubideak eta Administrazioaren betebeharra</b>	6
Derechos lingüísticos de la ciudadanía y obligaciones de la Administración	
<b>Administrazioa: eredu eta arnascune</b>	6
La Administración: modelo y arnascune	
<b>Hizkuntza kudeaketaren zeharkakotasuna</b>	7
Transversalidad de la gestión política	
<b>Hizkuntza berdintasuna eta hizkuntza aniztasuna</b>	7
Igualdad lingüística y diversidad lingüística	
<b>Erabilera normalizatua eta orokorra</b>	7
Uso normalizado y general	
<b>Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketen baliotasun juridikoa</b>	8
Validez jurídica de las actuaciones realizadas en una lengua oficial	
<b>Kalitatezko komunikazioa</b>	8
Comunicación de calidad	
<b>Komunikazio telematikoa</b>	8
Comunicación telemática	
<b>Diskriminaziorik gabeko hizkuntza</b>	8
Lenguaje no discriminatorio	
<b>1. ARDATZA: KUDEAKETA</b>	9
EJE 1: GESTIÓN	
<b>1.1.1. Euskararen kudeaketa orokorra</b>	9
1.1.1. Gestión general del euskera	
<b>1.1.2. Lidergoa</b>	10
1.1.2. Liderazgo	
<b>1.1.3. Langileak</b>	11
1.1.3. Personal	



<b>1.1.4. Hizkuntza gaitasuna.....</b>	<b>11</b>
1.1.4. Competencia lingüística	
<b>1.1.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa.....</b>	<b>11</b>
1.1.5. Comunicación de la estrategia de promoción del uso del euskera	
<b>1.1.6. Hizkuntza klausulak.....</b>	<b>12</b>
1.1.6. Cláusulas lingüísticas	
<b>2. ARDATZA: ERABILERA.....</b>	<b>16</b>
EJE 2: USO	
<b>2.1. Zerbitzu hizkuntza.....</b>	<b>16</b>
2.1. Lengua de servicio	
<b>2.1.1. Irudia.....</b>	<b>16</b>
2.1.1. Imagen	
<b>2.1.2. Herritarrekoiko harremanak.....</b>	<b>19</b>
2.1.2. Comunicaciones con la ciudadanía	
<b>2.2. Lan hizkuntza.....</b>	<b>21</b>
2.2. Lengua de trabajo	
<b>2.2.1. Barne-harremanak.....</b>	<b>21</b>
2.2.1. Relaciones internas	
<b>2.2.2. Kanpo-harremanak.....</b>	<b>23</b>
2.2.2. Comunicaciones externas	
<b>2.2.3. Laneko prestakuntza orokorra.....</b>	<b>24</b>
2.2.3. Formación laboral general	
<b>2.2.4. Baliabide informatikoak.....</b>	<b>25</b>
2.2.4. Recursos informáticos	
<b>2.2.5. Sortze-hizkuntza.....</b>	<b>25</b>
2.2.5. Lengua de creación	
<b>2.2.6. Itzulpen irizpideak.....</b>	<b>25</b>
2.2.6 Criterios de traducción	
<b>IRIZPIDE ZEHATZAK.....</b>	<b>27</b>
CRITERIOS ESPECÍFICOS	
<b>I. Euskarazko administrazio-unitateak.....</b>	<b>27</b>
I. Unidades administrativas en Euskera	
<b>II. Euskara nabarmenzeko bideak.....</b>	<b>28</b>
II. Medidas para resaltar el euskera	
<b>III. Zuzenketa, itzulpen eta interpretazio zerbitzuak erabiltzeko irizpide zehatzak.....</b>	<b>30</b>
Criterios específicos para la utilización de los servicios de corrección, traducción e interpretación	
<b>IV. Baliabide informatikoei buruzko xehetasunak.....</b>	<b>32</b>
IV. Criterios específicos para recursos informáticos	



**V. Administrazio kontratuen araberako hizkuntza klausulak.....33**  
V. Cláusulas lingüísticas en función del tipo de contrato

**VI. Lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezartzeko prozedura eta irizpideak.....36**  
VI. Procedimiento y criterios de asignación de perfiles lingüísticos y de fechas de preceptividad a los puestos de trabajo.



## Zer dira hizkuntza irizpideak?

Hemen jasotakoak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera rako irizpide orokorrak dira, eta hizkuntza arau batzuk finkatu nahi dituzte Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolan euskararen erabilera normalizatzeko; hau da, eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea hobetzeko xede, bere jardueretan euskara erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izan dadin.

Irizpideon betetze maila eta hartu beharreko neurriak indarrean dagoen Euskara Planari etengabeko segimendua eginez aztertuko dira, baita aldizka egingo diren ebaluazioetan ere.

### Lege markoa

Ondoren deskribatzen diren hizkuntza irizpide hauek zehazteko araudi hau hartu da oinarritzat:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko.
- 1991ko Donostiako Udalean eta udalerrian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Arauak.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1eko, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko.

### Helburu nagusiak

Hizkuntza irizpideek hiru helburu nagusi dituzte:

- a) Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta berdintasuna lortzea.
- b) Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea Musika eta Dantza Eskolan, euskara zerbitzu hizkuntza, lan hizkuntza eta beste administrazioekiko harreman hizkuntza izan dadin.
- c) Musika eta Dantza Eskola, Donostiako Udalaren menpeko erakundea izanik, euskararen normalizazioan eredu izatea.

### Eragin eremua

Irizpide hauek Donostiako Musika eta Dantza Eskola Tokiko Erakunde Autonomoari eragiten diote; ondorioz, bertan jasotako hizkuntza irizpideak bete

## ¿Qué son los criterios lingüísticos?

En este documento se recogen los criterios generales para el uso de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, con el objetivo de fijar unas normas lingüísticas para la normalización del uso del euskera en la Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián; es decir, con el fin de mejorar la calidad de los servicios que presta, de manera que el euskera sea la lengua de uso normal y general en sus actividades.

El grado de cumplimiento de estos criterios y las medidas a adoptar se analizarán mediante un seguimiento continuo del plan, así como mediante las evaluaciones periódicas que se realicen.

### Marco jurídico

Para la determinación de los criterios lingüísticos que presentamos se ha tomado como base la siguiente normativa:

- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.
- Normas para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y Municipio de Donostia / San Sebastián 1991.
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
- Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.
- Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco

### Objetivos generales

Los criterios lingüísticos tienen tres objetivos principales:

- a) Garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y lograr la igualdad lingüística.
- b) La normalización y el fomento del uso del euskera en La Escuela de Música y Danza como lengua de servicio, lengua de trabajo y lengua de relación con otras administraciones.
- c) La Escuela de Música y Danza debe ser, como organismo dependiente del Ayuntamiento de San Sebastián, referente en la normalización del uso del euskera.

### Ámbito de aplicación

Estos criterios afectan al Organismo Autónomo Local Escuela de Música y Danza de Donostia / San Sebastián, por lo que todas sus unidades deberán



beharko dituzte bertako atal guztiak.

Honako atal hauek osatzen dute erakunde autonomoa:

- Kudeatzailearen Bulegoa
- Musika eta Dantza Eskola
  - Atotxako egoitza
  - Dantza egoitza
  - Herrerako egoitza
  - Auzoko ikasgelak
- Zerbitzu Orokorrak
  - Liburutegi eta artxibo zerbitzua
  - Laguntza teknikoa
  - Kudeaketa administratiboa
  - Oinarrizko arreta
- Txistulari Taldea

#### **Herriaren hizkuntza eskubideak eta Administrazioaren betebeharra**

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiak dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, eta botere publikoek eskubide horien erabilera bermatu behar dute. Oinarrizko printzipio horretatik ondorioztatzen da hizkuntza eskubideak herritarrenak direla, eta ez botere publikoenak, eta azken hauiei dagokiela eskubide horiek errespetatzea eta betetzen direla bermatzea. Horrela, Eskola betebeharra da eskubide horren erabilera bermatzea.

#### **Administrazioa: eredu eta arnascune**

Azken 40 urtean euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko urrats garrantzitsuak egin dira gizarte arloko zenbait eremutan, hala nola, hezkuntzan eta helduen euskalduntzean edo administrazioan.

Euskararen biziberritzea, ordea, ez da soilik etorriko hezkuntza sisteman egindako ahaleginetik, edo gizabanakoak euskalduntzetik. Ezinbestekoa da erabilera esparru eta funtzi batzuk ere irabaztea eta, beraz, zentzuduna dirudi hezkuntzan egindako lanari arlo sozioekonomikoan segida ematea. Kontuan hartu behar da, gainera, heldu askorentzat lan mundua dela euskara erabiltzeko duen eremu bakarra edo bakarrenetakoa. Horrenbestez, norabide horretan, Donostiako Udalaren menpeko erakundea izanik, Musika eta Dantza Eskolari ere badagokio, herritarren aurrean eredugarritasunetan jokatz, hiriko arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko prozesuan parte hartzea, Eskola bera donostiarrentzat hizkuntzaren erabilerarako erreferentziazko gune -arnascune- izateko urratsak eginez.

Eskolak herritarren hizkuntza hautua bermatzeaz gain, euskaraz ere kalitatezko zerbitzua eskaini behar die, eta nekez lortuko du helburu hori euskara lan-hizkuntza ez bada, eta, are gehiago, sortze-

cumplir los criterios lingüísticos recogidos en este documento.

El organismo autónomo está compuesto por las siguientes unidades:

- Oficina de la Gerencia
- Escuela de Música y Danza
  - Sede de Atotxa
  - Sede de Danza
  - Sede de Herrera
  - Aulas de barrio
- Servicios Generales
  - Servicio de Biblioteca y archivo
  - Apoyo Técnico
  - Administración y gestión
  - Atención Básica
- Banda de Txistularis

#### **Derechos lingüísticos de la ciudadanía y obligaciones de la Administración**

La ciudadanía de la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene derecho a conocer y usar el euskera y el castellano, y los poderes públicos deben garantizar el ejercicio de dichos derechos. De este principio básico se desprende que los derechos lingüísticos son de la ciudadanía y no de los poderes públicos, y que corresponde a estos a estos últimos el respeto y la garantía de su cumplimiento. Por lo tanto, es obligación de la Escuela garantizar el ejercicio de los derechos lingüísticos.

#### **La Administración: referente y espacio vital para el euskera**

En los últimos 40 años, se han dado pasos importantes para incrementar el conocimiento y el uso del euskera en diferentes ámbitos sociales, tales como la educación, la euskaldunización de personas adultas y la administración.

Sin embargo, la revitalización del euskera no vendrá únicamente por el esfuerzo del sistema educativo o por la euskaldunización de las personas adultas. Es necesario ir ganando otros ámbitos de uso y otras funciones, por ejemplo, en el terreno socioeconómico, dando así continuidad al trabajo realizado en el sistema educativo. Hay que tener en cuenta, por otro lado, que para muchos adultos el mundo laboral es el único ámbito, o uno de los pocos, en el utilizan el euskera. Por lo tanto, en esa dirección, siendo un organismo dependiente del Ayuntamiento de San Sebastián, corresponde también a la Escuela de Música y Danza participar, con ejemplaridad ante la ciudadanía, en el proceso de euskaldunización del ámbito socioeconómico de la ciudad, dando pasos para que la propia Escuela sea referente –arnascune– para la ciudadanía en el uso del euskera.

La Escuela, además de garantizar la elección lingüística de la ciudadanía, debe ofrecer un servicio de calidad también en euskera, y difícilmente logrará este objetivo si el euskera no es lengua de trabajo y,



hizkuntza ez bada.

Horrela, euskaraz egin daitekeena euskaraz egitea, norabide horretan nork bere urratsak egitea, horixe da iparra, eta euskarazko administrazio-unitateak dira ibilbide horretan aurrera egiteko tresna nagusia. Dena dela, euskarazko administrazio-unitateen garapena ez da beraiei bakarrik dagokien lana, euskarazko administrazio-unitate direnek eta ez direnek elkarlanean garatu beharreko estrategia da; eta, era berean, ordezkari politikoen ardura ere bada euskarazko administrazio-unitateak babestea eta bere jarduna normaltasunez euskaraz garatzeko baldintzak bermatzea.

### Hizkuntza kudeaketaren zeharkakotasuna

Edozein erakunderen funtzionamenduan hizkuntzen kudeaketa zeharka landu beharreko gaia izanik, Eskolaren eginkizunen garapenerako kudeaketa eta kalitate tresna guztietan hizkuntza ofizialen kudeaketa zehar lerro gisa txertatzeko neurriak hartuko dira.

Horrekin batera, garatzen diren proiektu, egitasmo eta ekintzetan, euskararen normalizazioan eragin positiboa izan dezaten neurriak hartzeko lanketa egingo da. Arreta berezia jarriko da haur eta gazteei zuzendutako jardueretan, izan ere, adin tarte horietakoek dute euskararen ezagutza handiena eta behar-beharrezkoak dituzte, hezkuntza arautuaren osagarri, bestelako erabilera eremuak eta jarduerak, euskara hobetu eta natural erabil dezaten.

### Hizkuntza berdintasuna eta hizkuntza aniztasuna

Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial ditugu, balio jurídico berbera izan arren, egoera desberdina bizi dutenak. Hori dela eta, herri-erakundeei dagokie, bi hizkuntzen arteko indar orekatzailea izatea, ezin baita berdin tratatu egoera desberdinean dagoena.

Zentzu honetan, gero eta eleanitzunago den hiri honen errealitateari erantzuteko Eskolak neurriak hartu eta sustatuko ditu euskarari funtza eta espacio propio batzuk emanez, gaztelaniarekiko oreka berri bat sustatuz eta gainerako hizkuntzei dagokien leku eginez.

Era berean, dokumentu honetan Eskolaren jardun eremu jakinetarako (argitalpenak...) hirian zabalkunde handiena duten hizkuntzen (euskarra, gaztelania, frantsesa eta inglesa) hurrenkera arautzen da, betiere, behar den kasuetan, gainerako hizkuntzen erabilera eragotzi gabe.

### Erabilera normalizatua eta orokorra

179/2019 Dekretuaren 5. artikuluak dioenez, euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera, eta alde horretatik, herri

más aún, lengua de creación.

El rumbo de la normalización lingüística debería ser que lo que se pueda hacer en euskera se haga en euskera y las unidades administrativas en euskera son la principal herramienta para avanzar en este camino. Pero el desarrollo de las unidades administrativas en euskera no es un trabajo exclusivo de estas, sino que se trata de una estrategia a desarrollar con la colaboración de las que no lo son. Por otro lado, es responsabilidad de los representantes políticos apoyar a las unidades administrativas en euskera y garantizar las condiciones para que puedan desarrollar su trabajo en euskera con normalidad.

### Transversalidad de la gestión política

Siendo la gestión lingüística una cuestión que debe tratarse de manera transversal en el funcionamiento de cualquier entidad, se adoptarán medidas que incorporen la gestión de las lenguas oficiales como línea transversal en todos los instrumentos de gestión y calidad que sirvan para el desarrollo de las funciones de la Escuela.

Asimismo, se trabajará en la adopción de medidas que incidan positivamente en la normalización del euskera en los proyectos, planes y acciones que se lleven a cabo. En este sentido, se prestará especial atención a las actividades dirigidas a niños/as y jóvenes. Esta franja de edad es la que mayor conocimiento del euskera tiene y es fundamental que como complemento a la educación reglada, tengan espacios y actividades extra escolares donde puedan hacer uso del euskera de una forma natural.

### Igualdad lingüística y diversidad lingüística

En la Comunidad Autónoma Vasca tenemos dos lenguas oficiales, con el mismo valor jurídico, pero que se encuentran en una situación diferente. Por ello, corresponde a las instituciones públicas actuar como fuerza equitativa entre ambas lenguas, ya que no se puede tratar de la misma manera a quienes se encuentran en una situación diferente.

En este sentido, la Escuela adoptará y promoverá medidas para responder a la realidad de una ciudad cada vez más plurilingüe, dando al euskera funciones y espacios propios, promoviendo un nuevo equilibrio con respecto al castellano y dando al resto de lenguas el lugar que les corresponde.

Asimismo, en este documento se regula el orden de las lenguas de mayor difusión en la ciudad (euskería, castellano, francés e inglés), para su uso por la Escuela en determinados ámbitos de actuación (publicaciones...), sin perjuicio del uso de otras lenguas cuando sea necesario.

### Uso normalizado y general

El artículo 5 del Decreto 179/2019 establece que el euskera, lengua propia del País Vasco, es lengua oficial como el castellano y, como tal, será lengua de



administrazioen jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izango da.

#### **Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketen baliotasun juridikoa**

Musika eta Dantza Eskolak hizkuntza ofizial batean edo bestean garatzen dituen egintza juridikoek eta jarduerek balio jurídico osoa izango dute. Nolanahi ere, une oro ziurtatu beharko zaie herriarrei administrazioarekin harremanetan jartzean hizkuntza aukeratzeko eskubidea dutela.

#### **Kalitatezko komunikazioa**

Eskolak kalitatezko komunikazioa sustatuko du, estilo zuzen, egoki eta ulergarian, herriarrek bere mezuak ahalegin handirik gabe ulertzeko eskubidea dutela jakinda. Horretarako, erraz irakurtzeko irizpideei jarraituko dien idazketa estiloa erabiliko du, hizkuntza ofizial bakoitzaren berezitasunak zainduz.

#### **Komunikazio telematikoa**

Komunikazio digitala ez da komunikazio analogikoa dagoen-dagoenean formatu elektronikora eramatea: hori baino askoz gehiago da. Komunikazio digitalak hizkuntza propioa du, bere baliabide estilistikoak, eta horiek guztiak aintzat hartu behar dira komunikazio egokia lortzeko.

#### **Diskriminaziorik gabeko hizkuntza**

Erakundeak erabiltzen duen hizkerak ezin izango du inolako diskriminaziorik eragin, genero, arraza edo bestelako arrazoiak direla-eta.

servicio y lengua de trabajo de uso normal y general en las actividades de las administraciones públicas.

#### **Validez jurídica de las actuaciones realizadas en una lengua oficial**

Los actos jurídicos y actuaciones que desarrolla la Escuela de Música y Danza en una u otra lengua oficial tendrán plena validez jurídica. En todo caso, se deberá garantizar, en todo momento, a la ciudadanía el derecho a elegir la lengua de relación con la Administración.

#### **Comunicación de calidad**

La Escuela promoverá una comunicación de calidad, en un estilo correcto, adecuado y comprensible, sabiendo que la ciudadanía tiene derecho a entender sin demasiado esfuerzo sus mensajes. Para ello, utilizará un estilo de escritura que siga criterios de lectura fácil, respetando las particularidades de cada lengua oficial.

#### **Comunicación telemática**

La comunicación digital no consiste en trasladar la comunicación analógica, tal y como está, al formato electrónico: es mucho más que eso. La comunicación digital tiene un lenguaje propio, sus propios recursos estilísticos, que hay que tener en cuenta para conseguir una comunicación adecuada.

#### **Lenguaje no discriminatorio**

El lenguaje utilizado no podrá suponer discriminación alguna por razón de género, raza o cualquier otro motivo.



## 1. ARDATZA: KUDEAKETA

6 arlotan banatuta dago:

- 1.1.1 Euskararen kudeaketa orokorra
- 1.1.2 Lidergoa
- 1.1.3 Langileak
- 1.1.4 Gaitasuna
- 1.1.5 Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa
- 1.1.6 Hizkuntza klausulak

### 1.1.1. Euskararen kudeaketa orokorra

Hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundeko kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatutako da. Hau da, hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzea Eskolak hartutako erabaki estrategikoa da, eta bere erronken artean dago euskararen erabilera sustatzea hizkuntza bien arteko erabilera-berdintasuna lortze aldera.

Era berean, erabilera planaren implementazioaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu, bere politika publikoak ebaluatzeko erabiltzen dituen tresna eta procedura arruntak erabilita.

Horrez gain, ebaluazio sistema hori, kanpoko edo barruko beste zenbait ebaluazio-sistemekin osatuko da.

### Hizkuntza ofizialak kudeatzeko antolakuntza-egiturak

Hizkuntza irizpide hauek eta, oro har, 7. plangintza aldiak jasotzen duena garatzeko eta implementatzeko antolakuntza egitura ondokoa izango da:

#### a) Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Batzordea

Erabilera batzordeari jarraipena emango zaio behar den kasuetan berau osatuz eta indartuz. Egitura iraunkor honen ardura izango da euskararen erabileraaren kudeaketa lan esparru guztiaren modu sistematikoan txertatzeko bidea bilatzea. Hauek izango dira funtziak:

- Artezkaritza Kontseiluak onartutako Plan Estratégico oinarri hartuta urteko ekintza plana osatzea, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak gidaritzat hartuta.
- Lehentasunak zehaztea.
- Aurrera eramango diren normalizazio ekintzak eta baliabideak adostea, zuzendaritzaren onespenarekin.
- Kudeaketa planen jarraipena egitea.

### Datu bilketarako sarea

Jarraipen hori modurik eraginkorrenean egite aldera, biderik egokiena eta eraginkorrena da erakundean betetzen den funtzioaren arabera banatzea adierazleei buruzko informazioa jasotzeko ardura;

## EJE 1: GESTIÓN

Está dividido en 6 áreas:

- 1.1.1 Gestión general del euskera
- 1.1.2 Liderazgo
- 1.1.3 Personal
- 1.1.4 Competencia
- 1.1.5 Comunicación de la estrategia de promoción del uso del euskera
- 1.1.6 Cláusulas lingüísticas

### 1.1.1. Gestión general del euskera

La gestión de las lenguas oficiales estará integrada en el sistema general de gestión de la entidad. Es decir, la gestión del uso de las lenguas oficiales es una decisión estratégica adoptada por la Escuela, y entre sus retos se encuentra promover el uso del euskera, para lograr la igualdad de uso entre ambas lenguas.

Asimismo, realizará el seguimiento y evaluación de la implementación del plan de uso, utilizando los instrumentos y procedimientos ordinarios utilizados para la evaluación de sus políticas públicas.

Además, este sistema de evaluación se complementará con otros sistemas de evaluación internos o externos.

### Estructura organizativa para la gestión de las lenguas oficiales

La estructura organizativa para el desarrollo e implementación de estas directrices lingüísticas y, en general, de lo que recoge el 7º periodo de planificación será la siguiente:

#### a) Comisión de Uso de las Lenguas Oficiales

Seguirá en funcionamiento la comisión de uso, completándola y reforzándola cuando se considere necesario. Esta estructura permanente será la encargada de buscar en cada departamento el cauce para integrar de forma sistemática la gestión del uso del euskera en todos los ámbitos de trabajo. Estas serán sus funciones:

- Adaptar el Plan Estratégico aprobado por la Junta Rectora por medio del plan anual de actuaciones, y de acuerdo con los criterios de uso de las lenguas oficiales.
- Establecer las prioridades.
- Consensuar las actuaciones normalizadoras que se llevarán a cabo y los recursos para ello, con la aprobación de la dirección.
- Hacer el seguimiento del plan de gestión.

### Red para la recogida de datos

Para realizar el seguimiento de la forma más eficiente, la práctica más adecuada es distribuir en la organización la responsabilidad de recoger la información sobre los indicadores según la función



alegia, adierazleen biltzale sare egonkor eta eraginkorra sortzea.

### Projektu estatistikoak

Eskolaren proiektu estatistikoetan euskara-aldaagaia sartuko da diseinu fasetik hasi eta ebaluazio fasera arte; hartara, ikertuko den eremu horretan euskararen ezagutza eta erabilera neurituko dira.

### 1.1.2. Lidergoa

#### Liderren jarrera eta egiteko

Musika eta Dantza Eskolako arduradun politiko eta teknikoei dagokie hizkuntza politikan lider izatea; hau da, hizkuntzen kudeaketaren ardura bere gain hartu eta euskararen erabilera sustatuko dute langileen artean. Halaber, era proaktiboan hartuko dute parte erabilera planaren diseinu, garapen eta jarraipenean. Horretarako, funtsezkoa izango da jarrera hauek bere egitea:

- Erakundearen ordezkari gisa euskararekiko jarrera aitzindaria erakutsiko dute.
- Lidergoa agertuko dute hizkuntzen kudeaketari buruz hartutako erabakietan.
- Euskararekiko erakundearen xedea eta ikuskera zein diren jakin eta onartuko dute.
- Estrategia gauzatzen eta helburuak lortzen implikatuko dira, eta horretarako foroetan, bileretan... aktiboki hartuko dute parte.
- Euren kargupeko pertsonak euskararen normalizazioan implikatuko dituzte eta sustapen lana egingo dute.
- Erabilera planean zehaztutako helburuak lortzeko behar besteko tresnak eta baliabideak jarriko dituzte.
- Erabilera planean zehaztutakoa bete ezean, neurri zuzentzaileak martxan jarriko dituzte.
- Erakundearen hizkuntza irizpideak betetzeko jarraipenean laguntza eskainiko dute
- Erabilera planean zehaztutakoa bete ezean, neurri zuzentzaileak martxan jarriko dituzte.

Halaber, sindikatuetako ordezkarien lidergoa eta implikazioa ezinbestekoak dira planaren garapenerako eta erakunde autonomoan hizkuntza politikari bultzada emateko.

#### Euskarazko administrazio-unitateak

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 17. artikuluaren arabera, beren zereginak nagusiki euskaraz beteko dituzten administrazio atalak dira euskarazko administrazio-unitateak.

Atal hauek Eskolan euskararen erabilera normalizatzeko planaren ardatz edo erdigune kontsidera daitezke eta, era berean, gainerako atalaletan ere irradiazio lana egingo dute. Dena dela, atal horiek arrakasta izatekotan, euskarazko administrazio-unitate direnen eta ez direnen arteko

que se desempeñe, es decir, crear una red de recopiladores de indicadores estable y eficaz.

#### Proyectos estadísticos

En los proyectos estadísticos de la Escuela se incluirá la variable sobre el euskera desde la fase de diseño hasta la evaluación, de forma que se pueda medir el conocimiento o uso de esta lengua en el ámbito que se va a analizar.

### 1.1.2. Liderazgo

#### Actitud y papel de liderazgo

Corresponde a los y las responsables políticas y técnicas liderar la política lingüística, de forma que asumirán la responsabilidad de la gestión de las lenguas y promoverán el uso del euskera entre el personal. Asimismo, participarán de forma proactiva en el diseño, desarrollo y seguimiento del plan de uso. Para ello, será fundamental que su actitud sea:

- Como representantes de la institución, mostrarán una actitud proactiva hacia el euskera.
- Ejercerán el liderazgo en las decisiones de gestión lingüística.
- Conocerán y asumirán el objetivo y la estrategia de la institución respecto al euskera.
- Se implicarán en la ejecución de la estrategia y en la consecución de los objetivos, participando activamente en foros, reuniones...
- Implicarán a las personas a su cargo en la normalización del euskera, fomentando su uso.
- Proporcionarán los instrumentos y recursos suficientes para alcanzar los objetivos definidos en el plan de uso.
- Colaborarán en el seguimiento del cumplimiento de los criterios lingüísticos de la entidad
- En caso de incumplimiento de lo establecido en el plan de uso, pondrán en marcha medidas correctoras.

Asimismo, el liderazgo e implicación de los y las representantes sindicales son imprescindibles para el desarrollo del plan y para dar un impulso a la política lingüística en el organismo autónomo.

#### Unidades administrativas en euskera

De acuerdo con el art. 17 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, se establece que serán Unidades en Euskera las que desarrollarán sus funciones primordialmente en euskera.

Estas unidades pueden considerarse el eje o centro del plan de normalización del uso de euskera en la Escuela y, a su vez, realizarán un trabajo de irradiación en el resto de las unidades administrativas. En cualquier caso, el éxito de las unidades administrativas en Euskera será el fruto de



elkarlanaren ondorio izango da. Euskarazko administrazio-unitateetarako nahiz horiekiko komunikazioetan gainerako zuzendaritzetarako hizkuntza irizpideak Irizpide Zehatzen I. Atalean jaso dira.

### 1.1.3. Langileak

Erakundeko langileen arteko komunikazioetan euskara erabiltzeak prestigioa ematen dio hizkuntzari.

Eskolak langileei informazioa emango die onartutako erabilera planari eta hizkuntza irizpideei buruz, langileek une oro argi izan dezaten zein den erakundearen bisio eta estrategia hizkuntzen kudeaketaren alorrean; eta zein hizkuntzatan egin behar duten beren lan jarduna. Era berean, langileek planaren garapenean parte hartzeko bideak landuko dira.

Langile berrien kasuan, helburua da Eskolara datozen pertsona hauek euskaraz lanean hastea modu naturalean. Horretarako, garrantzitsua da hasieratik langile hauekiko harremana euskaraz izatea; izan ere, langile berriak pizgarri izan litezke lantaldearen hizkuntza ohiturak aldatzeko. Horretarako, Erakundean lanean hasi bezain laster hizkuntza politikan hartutako erabakien berri emango ziae.

### 1.1.4. Hizkuntza gaitasuna

Lanpostu zerrendan hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak aldatzeko edo berriak ezartzeko, 19/2024 Dekretuak (edo unean-unean indarrean dagoen araudian) xedatutakoa eta Irizpide Zehatzen VI. atalean zehazturiko irizpideak hartuko dira kontuan. Atal berean zehazten dira lanpostu zerrendatik kanpoko langileen (programa jakinetakoak, enplegu sustapenekoak, praktiketakoak, eta abar) euskara maila zehazteko irizpideak.

Lanpostuetako hizkuntza eskakizunetan nahiz derrigortasun datetan aldaketak egiteko proposamen guztiak aurrez Euskara Zerbitzuaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena jaso beharko dute. Lanpostu zerrendan aldaketak egiteko prozedura plan honen Irizpide Zehatzen VI. atalean jasotzen da.

### 1.1.5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa

Eskolak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatuko die herritarrei eta gainerako interes taldeei (beste administrazio publikoak, hornitzaileak, elkartek, empresa pribatuak, etab.).

Horrez gain, erakundeak euskararen erabilera normalizatu eta biziberritzeko beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan

la colaboración entre estas unidades y el resto de los departamentos municipales. Los criterios lingüísticos tanto para las Unidades administrativas en Euskera como para el resto de departamentos en las comunicaciones con ellas se recogen en el Apartado I de los Criterios Específicos.

### 1.1.3. Personal

El uso del euskera en las comunicaciones entre el personal de la organización da prestigio a la lengua.

La Escuela informará al personal sobre el plan de uso aprobado y sobre los criterios lingüísticos, para que el personal tenga en todo momento clara, la visión y la estrategia de la entidad en materia de gestión lingüística, así como la lengua en la que debe desarrollar su actividad laboral. Asimismo, se trabajará para facilitar la participación del personal en el desarrollo del plan.

En lo que se refiere al personal de nueva incorporación, el objetivo es que empiecen desde el principio a trabajar en euskera de forma natural. Para ello, es importante que la relación con el personal nuevo sea, desde el primer momento, en euskera; y eso mismo puede ser un estímulo para cambiar los hábitos lingüísticos del resto del personal. Para ello, tan pronto como se incorporen a la Escuela, se les informará sobre la política lingüística de la misma.

### 1.1.4. Competencia lingüística

La modificación de los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad en la relación de puestos de trabajo, o su asignación, se regirá por lo dispuesto en el Decreto 19/2024 (o por la normativa vigente en cada momento) y por las instrucciones que se detallan en el Apartado VI de los Criterios Específicos. En dicho apartado se especifican los criterios para la determinación del nivel de euskera del personal no incluido en la relación de puestos de trabajo (personal de determinados programas, promoción de empleo, prácticas, etc.).

Todas las propuestas de modificación de perfiles lingüísticos y de fechas de preceptividad de los puestos de trabajo, deberán contar con informe previo del Servicio de Euskera y de la Viceconsejería de Política lingüística. El procedimiento de modificación de la relación de puestos de trabajo se recoge en el Apartado VI de los Criterios Específicos.

### 1.1.5. Comunicación de la estrategia de promoción del uso del euskera

La Escuela comunicará a la ciudadanía en general y a los grupos de interés (otras administraciones públicas, proveedores, asociaciones, empresas privadas, etc.) su estrategia de promoción del uso del euskera.

Además, la entidad participará en iniciativas para conocer y compartir otras experiencias destinadas a normalizar y revitalizar el uso del euskera, dando a



parte hartuko du, bere praktika onak ezagutaraziz eta besteen praktiketatik ikasiz.

### 1.1.6. Hizkuntza klausulak

Eskolak kudeatzen dituen dirulaguntza, kontratu, hitzarmen, lagapen eta baimen guztietako oinarri eta ebazenetan txertatuko dira horietako bakoitzari dagozkion hizkuntza irizpide edo klausulak, plan honetan atalka zehazten direnak, eta hala adieraziko zaie interesatuei.

Horiek esleitzeko ardura dutenek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek atal honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

Hizkuntza irizpide hauek betetzea ezinbesteko baldintza izango da.

#### 1.1.6.1. Kontratu publikoak

Kontratu publiko baten bidez emandako zerbitzuak Eskolak berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

Eskolak bere kontratu publikoetan hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betearaziko du. Horrenbestez, kasu bakoitzean dagozkion hizkuntza betebeharra ezarri behar dira baldintza administratibo bereziengagirian, eta ezaugarri teknikoen agirian, sinatzen den kontratuaren edota kontratazioa arautzeko bestelako agirietan.

Hemen zehazten diren hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko baldintzei kontratuaren funtsezko betebehar izaera emango zaie expedientearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 30eko 9/2017 Legearen ondorioetarako, eta hortaz, horiek ez betetzeak kontratuaren gainerako funtsezko betebeharra ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zehapenak aplikatzea edo kontratu suntsiaraztea.

Herritarrei arreta edo zerbitzu ematea eskatzen duten kontratuaren baldintza agirietan ezartzen diren hizkuntza klausulek honako hau bermatu beharko dute:

- Proportzionaltasun printzipioa bermatuko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien, xedearren eta hartzaleen arabera.
- Kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotuta egongo dira.
- Enpresak bere baliabideen edo besteren baliabideen bitartez egiaztatu ahalko ditu.

Kontratua betearazteko baldintzetan, kontratatailearen eta esleipendunaren arteko komunikazio hizkuntzari buruzko erregulazioa sartu ahal izango da. Kontratuaren arduraduna euskarazko administrazio-unitate bateko langilea edo hizkuntza

conocer sus buenas prácticas y aprendiendo, además, de las prácticas de otras.

### 1.1.6. Cláusulas lingüísticas

En las bases y resoluciones de subvenciones, contratos, convenios, concesiones y autorizaciones que gestiona la Escuela se incluirán los requisitos o cláusulas lingüísticas que se detallan en cada apartado de este plan, y así se indicará a las personas interesadas.

Las personas responsables de su tramitación adoptarán las medidas oportunas para verificar el cumplimiento de lo establecido en el presente artículo por parte de las personas beneficiarias y para velar por el buen uso de las lenguas oficiales.

El cumplimiento de dichos criterios lingüísticos será condición indispensable.

#### 1.1.6.1. Contratos públicos

Se reconoce a la ciudadanía el derecho a recibir los servicios prestados mediante un contrato público en las mismas condiciones que si hubieran sido prestados por la propia Escuela.

La Escuela hará cumplir en sus contratos públicos el régimen de doble oficialidad lingüística. Por lo tanto, deben establecerse en cada caso las obligaciones lingüísticas que correspondan en el pliego de cláusulas administrativas particulares, en el pliego de prescripciones técnicas, en el contrato que se firme y demás documentos que regulen la contratación.

Las condiciones relativas al uso de las lenguas oficiales que aquí se detallan tendrán el carácter de obligación esencial del contrato en el expediente en cuestión, a los efectos de la Ley 9/2017, de 30 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por lo que su incumplimiento tendrá las mismas consecuencias que el incumplimiento del resto de obligaciones esenciales del contrato: aplicación de penalidades o resolución del contrato.

En los contratos que requieran atención a la ciudadanía o que tengan por objeto la prestación de un servicio, las cláusulas lingüísticas que se recogen en el pliego de condiciones deberán garantizar lo siguiente:

- Se garantizará el principio de proporcionalidad en función de las características, finalidad y personas destinatarias de cada caso.
- Estarán sujetas a las funciones que hayan de desempeñarse en virtud del contrato.
- La empresa podrá acreditarlas por medios propios o ajenos.

En las condiciones de ejecución del contrato, podrá incluirse la regulación relativa a la lengua de comunicación entre la parte contratante y la empresa adjudicataria. Cuando la persona responsable del contrato pertenezca a una unidad administrativa en



gaitasun nahikoa duen beste zuzendaritza bateko kidea denean, bien arteko ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira nagusiki. Hortaz, kontratua esleitu eta gero, esleipendunak hizkuntza gaitasun egokiko solaskideak izendatuko ditu.

#### a) Kontratuaren arduradunaren betebeharrak

- Hizkuntza klausulak txertatzea, beti eta kontratu mota edozein dela ere. Kontratuaren xedearen arabera, bi hizkuntza ofizialen edo, behar izanez gero, hizkuntza gehiagoren erabilerari buruzko baldintzak txertatuko dira, Irizpide Zehatzen V. atalean jasotzen denaren arabera. Horretarako, dagokion baldintza agiriaren lanketa hastarekin bat, kontratuaren arduraduna Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarriko da.

- Bi hizkuntza ofizialetan argitaratzea kontratua arautzeako sortzen den dokumentazioa; besteak beste, litzitazio iragarkiak, administrazio klausula berezien agiriak, baldintza teknikoen agiriak eta kontratuko gainerako dokumentuak.

- Neurriak hartza kontratueta txertatutako hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

#### b) Kontratutako enpresaren betebeharrak

- Baldintza pleguetan zehaztutako hizkuntza baldintzak betetza.

- Kontratua gauzatzerakoan erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izan daitezen bermatzea. Hizkuntzaren kalitatearen aldetik, gutxieneko baldintzak ez dituztela betetzen ikusiz gero, zuzentza eskatu ahal izango zaio, inolako gainkosturik eragin gabe.

#### 1.1.6.2. Dirulaguntzak

Musika eta Dantza Eskolak ematen dituen dirulaguntzetan (deialdi bidezkoak, izendunak, zuzenak, hitzarmen bidezkoak...) euskara sustatzeko hizkuntza irizpideek proportzionaltasun printzipioari jarraituko diote, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaleen arabera. Hori dela eta, diruz laguntzen diren haur eta gazteentzako jarduerak euskaraz izango dira, oro har. Horretarako, dirulaguntzen oinarriean bakoitzaren izaeraren araberako irizpideak zehaztuko dira: betebeharra, balioespresa...

Eskolaren dirulaguntzaren bat jasotzen duten entitate juridiko eta pertsona fisikoek ondokoak jarraitu beharko dute:

- Diruz lagundutako jarduera zein hizkuntzatan egingo den adieraziko da.

euskera o a otro departamento con nivel suficiente de euskera, las relaciones orales y escritas entre ambas partes serán por norma general en euskera. Por tanto, una vez adjudicado el contrato, la empresa adjudicataria designará personas interlocutoras con competencia lingüística adecuada.

#### a) Obligaciones la persona responsable del contrato

- Incluir cláusulas lingüísticas, siempre, con independencia del tipo de contrato. En función del objeto del contrato, se incluirán las condiciones relativas al uso de las dos lenguas oficiales o, en su caso, de más lenguas, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado V de los Criterios Específicos. Para ello, al inicio del proceso de elaboración del correspondiente pliego, la persona responsable del contrato se pondrá en contacto con el Servicio de Euskera.

- Publicar en ambas lenguas oficiales la documentación que regula el contrato, tales como anuncios de licitación, pliegos de cláusulas administrativas particulares, pliegos de prescripciones técnicas y demás documentos contractuales.

- Adoptar medidas para verificar el cumplimiento de las condiciones lingüísticas incluidas en los contratos y velar por la corrección del uso de las lenguas oficiales.

#### b) Obligaciones de la empresa contratada

- Cumplir los requisitos lingüísticos especificados en los pliegos de condiciones.

- Garantizar que los textos en euskera utilizados en la ejecución del contrato sean correctos y adecuados. En cuanto a la calidad de la lengua, si se comprueba que no cumplen los requisitos mínimos, se le podrá exigir su corrección sin que ello suponga sobrecoste alguno.

#### 1.1.6.2. Subvenciones

En las subvenciones (concurrencia, nominativas, directas, convenios...) que otorgue la Escuela de Música y Danza los criterios lingüísticos se ajustarán al principio de proporcionalidad en función de las características, finalidad y destinatarios de la actividad subvencionada. Así, las actividades subvencionadas para niñas/os y jóvenes se desarrollarán, con carácter general, en euskera. Para ello, en función de su naturaleza, se concretarán los criterios correspondientes en las convocatorias de ayudas: obligación, valoración...

Las entidades jurídicas y personas físicas que reciban alguna subvención de la Escuela deberán cumplir lo siguiente:

- Se dará a conocer el idioma en que se desarrollará la actividad subvencionada.



- Diruz lagundutako jarduera ezagutzen emateko edo jardueraren lagungarri gisa egiten dituzten euskarri guztiak, ahoz zein idatziz (argitalpen, idatzi, iragarki, ohar, propaganda, bozgorailu...), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, Irizpide Zehatzen II. atalean adierazitako euskara nabarmentzeko neurrien arabera.

- Diruz laguntzen den jarduera webgunea, dibulgazio argitalpena edota aldizkaria bada, jardueraren beraren edukia ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango da.

- Era berean, jendaurreko ekitaldian bozgorailu bidezko mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz, ordena horretan, emango dira.

- Bi hizkuntza ofizialez gain, komunikazioan beste hizkuntza batzuk erabili behar direnean, hurrenkeria hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa eta inglesa.

#### 1.1.6.3. Hitzarmenak

Musika eta Dantza Eskolak pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen diren hitzarmenak, gutxienez, euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenaren edukia nolakoa den, euskara sustatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak babesteko hizkuntza klausulak txertatuko dira.

#### 1.1.6.4. Erakundearen instalazio eta materialen erabilera

- Eskolaren instalazioak eta materialak erabiliz antolatutako edozein jarduerari loturik, euskarri fisikoan nahiz digitalean sortzen diren idatzi, web orri, app, iragarki, ohar, txartel edo gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, Irizpide Zehatzen II. atalean adierazitako euskara nabarmentzeko neurrien arabera, eta hizkuntza horietan egingo da jardueraren publizitate eta zabalkundea. Bozgorailu bidez ahozko oharrak zabalduz gero, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira; ele bietan eginez gero, lehenik euskaraz emango da.

- Jendeari harrera egiteko langileek bermatu egin beharko dute euskara, gaztelania bezalaxe, zerbitzu hizkuntza izango dela eta lehen hitza euskaraz egingo dute.

- Bi hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntza batzuk erabili behar direnean, hurrenkeria hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa eta inglesa.

- Haurrei zuzendutako jardueretako musika, oro har, euskarazkoa izango da eta gainerako adin taldeei zuzendutakoak direnean, euskarazkoen kopurua gutxienez erdia izango da.

- Instalazioak eta materialak erabiltzeko baimena ematerakoan, bereziki haurrei eta gazteentzako jardueren kasuan, euskarazkoek lehentasuna izango

- Los elementos utilizados, oralmente o por escrito (publicaciones, anuncios, escritos, avisos, propaganda, megafonía...), para dar a conocer la actividad subvencionada o para complementarla se realizarán en euskera o en euskera y castellano, de acuerdo con las medidas para destacar el euskera establecidas en el Apartado II de los Criterios Específicos.

- Si la actividad subvencionada es una página web, una publicación divulgativa o una revista, el contenido de la misma se realizará en euskera o en euskera y castellano.

- Asimismo, los mensajes difundidos en los actos públicos mediante megafonía se emitirán en euskera, o en euskera y castellano, en este orden.

- Cuando además de las dos lenguas oficiales, también haya que utilizar otras lenguas en las comunicaciones, se seguirá este orden: euskera, castellano, francés e inglés.

#### 1.1.6.3. Convenios

Los convenios suscritos por la Escuela de Música y Danza con personas físicas y jurídicas se redactarán, al menos, en euskera.

En función del contenido del convenio, se incluirán cláusulas lingüísticas para la promoción del euskera y la protección de los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

#### 1.1.6.4. Uso de instalaciones y materiales de la entidad

- Los escritos, páginas web, apps, anuncios, avisos, tarjetas, etc. que se generen en soporte físico o digital, asociados a una actividad organizada que hace uso de instalaciones y materiales de la Escuela, se realizarán en euskera o en euskera y castellano, de acuerdo con las medidas para destacar el euskera establecidas en el Apartado II de los Criterios Específicos, y además, la promoción y difusión del evento se realizará en ambas lenguas. Si se utilizaran mensajes orales por megafonía, serán emitidos en euskera o en las dos lenguas, y en el caso de hacerlo en bilingüe, se emitirá primero en euskera.

- El personal de atención al público deberá garantizar que el euskera, al igual que el castellano, sea lengua de servicio, y se dirigirán al público primero en euskera.

- Cuando además de las dos lenguas oficiales haya que utilizar otras lenguas se seguirá este orden: euskera, castellano, francés e inglés.

- La música de las actividades dirigidas al público infantil, en general, se emitirá en euskera, y cuando las actividades se dirijan al resto de grupos de edad, se emitirá al menos la mitad en dicha lengua.

- A la hora de conceder autorizaciones de uso de instalaciones y materiales, especialmente en el caso de actividades infantiles y juveniles, tendrán



dute.

#### 1.1.6.5. Jarduerak bide publikoan

- Bide publikoan ezartzen diren egituretako (hesi, harmaila, aldamio, oholtza, karpa, saltoki...) errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrek euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, Irizpide Zehatzen II. atalean adierazitako euskara nabarmentzeko neurrien arabera.

- Bide publikoan antolatutako edozein jarduerari loturik, euskarri fisikoan nahiz digitalean, sortzen diren idatzi, iragarki, ohar, txartel eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, eta hizkuntza horietan egingo da jardueraren publizitatea eta zabalkundea. Jarduera ezagutarazteko nahiz ekitaldian bertan bozgorailu bidez ahozko mezuak zabalduz gero, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz zabalduko dira.

- Bi hizkuntza ofizialez gain, komunikazioan beste hizkuntza batzuk erabili behar direnean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.

- Haurrei zuzendutako jardueretako musika, oro har, euskarazkoa izango da eta gainerako adin taldeei zuzendutakoak direnean, euskarazkoen kopurua gutxienez erdia izango da.

preferencia las realizadas en euskera.

#### 1.1.6.5. Actividades en la vía pública

- La rotulación fija y los mensajes ocasionales dispuestos en estructuras (vallas, gradas, andamios, tablados, puestos...) situadas en la vía pública se escribirán en euskera o en euskera y castellano, de acuerdo con las medidas para destacar el euskera establecidas en el Apartado II de los Criterios Específicos.

- Todos los anuncios, avisos, carteles y demás elementos que se generen en soporte físico o digital, y estén asociados a una actividad organizada en la vía pública se hará también en euskera o en euskera y castellano, y se realizará en dichas lenguas la difusión y la publicidad de la actividad. Si se difunden mensajes orales por megafonía para dar a conocer la actividad, o durante el transcurso de la misma, se emitirán en euskera o en euskera y castellano.

- Cuando además de las dos lenguas oficiales, también haya que utilizar otras lenguas en las comunicaciones, se seguirá este orden: euskera, castellano, francés e inglés.

- La música de las actividades dirigidas al público infantil será en euskera, como norma general, y en las actividades dirigidas al resto del público, se emitirá en euskera al menos la mitad de la música.



## 2. ARDATZA: ERABILERA

Ardatz hau 2 eremu eta 7 arlotan banatuta dago:

### 2.1. Zerbitzu hizkuntza

#### 2.1.1. Irudia

2.1.2. Herritarrekiko harremanak

### 2.2. Iñ hizkuntza

2.2.1. Barne-harremanak

2.2.2. Kanpo-harremanak

2.2.3. Prestakuntza

2.2.4. Baliabide informatikoak

2.2.5. Sortze-hizkuntza

2.2.6. Itzulpen irizpideak

### 2.1. Zerbitzu hizkuntza

#### 2.1.1. Irudia

##### Errotuluak (finkoak eta behin-behinekoak)

Erakundearen instalazioetako eta euskarrieta (bulegoak, ibilgailuak, jantziak, igogailuak, kafe makinak, fotokopiagailuak, poltsak eta antzekoak, eta abar) errotuluak, euskarri fisiko zein digitalean, hizkuntza ofizial bietan idatziko dira.

Errotula euskaraz hutsez jarri ahalko da honako kasu hauetan:

- a) Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
- b) Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
- c) Mezuarekin batera, esanahia argitzeko pictograma ere badagoenean.
- d) Egoitzaren edo ezagutzera ematen den jardueraren izaerak edo hartzaleen berezitasunek ahalbidetzen dutenean.

Bi hizkuntza ofizialez gain, errotulazioa beste hizkuntza batuetan ere egin behar denean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa, inglesa eta gainerakoak.

Irizpide horiek beteko dira, halaber, honako hauetan: Eskolaren organo, atal, egitarau, proiektu, jarduera eta ekintza guztien izen ofizialetan; seinalezapenean, papertegiko elementu idatzi finkoetan; tresneriako jarrabideetan.

Idazki elebidun edo eleaniztunetan euskara nola nabarmendu behar den jakiteko, berriz, Irizpide Zehatzen II. ataleko argibideetara.

#### Toponimiaren idazkera

Donostiako kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala, eta, oro har, toponimoak, Donostiako Udalak finkatzen ditu, jatorrizko hizkuntza (euskarra, gaskoia, gaztelania, etab.) eta haren grafia akademikoa errespetatuz.

Egoitza berriak sortu edo izendatzeko, Donostiako

## EJE 2: USO

Este eje está dividido en 2 áreas y 7 secciones:

### 2.1. Lengua de servicio

#### 2.1.1. Imagen

2.1.2. Comunicaciones con la ciudadanía

### 2.2. Lengua de trabajo

2.2.1. Comunicaciones internas

2.2.2. Comunicaciones externas

2.2.3. Formación

2.2.4. Recursos informáticos

2.2.5. Lengua de creación

2.2.6. Criterios de traducción

### 2.1. Lengua de servicio

#### 2.1.1. Imagen

##### Rótulos (fijos y provisionales)

Los rótulos de las instalaciones y soportes (oficinas, vehículos, vestuario, ascensores, máquinas de café, fotocopiadoras, bolsas y similares, etc.), tanto físicos como digitales, se redactarán en las dos lenguas oficiales.

El rótulo podrá colocarse sólo en euskera en los siguientes casos:

- a) Cuando la grafía del texto sea muy similar en euskera y castellano.
- b) Cuando el rótulo en euskera no cause confusión.
- c) Cuando el mensaje vaya acompañado de un pictograma que aclare su significado.
- d) Cuando lo permita la naturaleza de la sede o de la actividad que se dé a conocer o las peculiaridades de las personas destinatarias.

Cuando, además de las dos lenguas oficiales, la rotulación deba realizarse en otras lenguas, se utilizará el siguiente orden: euskera, castellano, francés, inglés y otras lenguas.

Estas instrucciones se seguirán también en los nombres oficiales de todos los órganos, unidades, programas, proyectos, actividades y acciones de la Escuela; en la señalización; en los elementos escritos fijos de papelería, y en los manuales de las diferentes herramientas.

Para ver cómo resaltar el euskera en los textos escritos bilingües o plurilingües se consultará en el Apartado II de los Criterios Específicos.

#### Grafía de topónimos

La nomenclatura oficial y, en general, los topónimos de las calles, carreteras, barrios, barriadas, montes, ríos y riachuelos de la ciudad los establece el Ayuntamiento, respetando la lengua original (euskerria, gascón, castellano, etc.) y su grafía académica.

Para la denominación de nuevas sedes se deberá



Udaleko Euskara Zerbitzuari eskatu beharko zaio toponimo horiei buruzko txostena eman dezala.

Toponimoek idazkera bikoitza izanik bi izenak oso antzekoak direnean, euskarazkoa erabiliko da.

Erabilera hori Eskolaren esparru guztietaera zabalduko da: udalerriko mapak, euskarri fisikoan nahiz digitalean sortzen diren idatzi, iragarki, ohar edo gainerakoak...

### Instalazioetako audioa

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak, audioa duten tresnez eta antzeko bitartekoak zabaldutakoak lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz emango dira. Komunikazio horiek euskaraz egingo dira ulermenaren bermatuta dagoenean edo hartzaleen ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean.

Musika jartzen bada, gutxienez erdia euskaraz izango da, eta haurrei eta nerabeei zuzenduriko gune edo jarduera bada, oro har, euskaraz.

### Argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea

Euskarri fisikoan nahiz digitalean argitaratzen diren aldizkari, liburu, mapa, plano, iragarki, publizitate, ikus-entzunezko eta abar euskaraz edo bi hizkuntza ofizialean egingo dira, Irizpide Zehatzen II. atalean adierazitako euskara nabarmenzeko neurrien arabera. Beraz, izaerak, gaiak edo jasotzaileen ezaugarriek (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) ahalbidetzen dutenean euskaraz egingo dira.

Zabalkundeari begira, iragarkiak, publizitatea eta kanpainak euskaraz argitaratu edo emango dira euskarazko hedabideetan. Euskara ofiziala edo berezko hizkuntza ez den lurrardeetan egiten denean, bertako hizkuntzaz gain, euskara ere erabiliko da, berezkoa den gure hizkuntza agerian uzteko.

Bi hizkuntza ofizialez gain beste hizkuntza batuetan ere plazaratu behar direnean, ondorengo hurrenkerari jarraituko zaio: euskara, gaztelania, frantsesa, inglesa eta bestelakoak.

Publizitate-kanpainak kontratatzen direnean, bereziki zainduko da euskarazko leloak euskaraz sortuak direla, eta ez direla gaztelaniazko leloaren itzulpen hutsa. Kontrataziorako baldintza pleguetan baldintza hori berariaz jasoko da.

Irizpide orokor horiez gain, komunikazio ekintzaren arabera (ahozko eta idatzizko publizitatea, kartelak, posterrak, eskuoriak, liburuxkak eta abar), Irizpide Zehatzen II. atalean agertzen diren irizpideak ere bete beharko dira.

### Agerraldi instituzionalak

Musika eta Dantza Eskolak antolatzen dituen kant-

solicitar al Servicio de Euskera que emita un informe sobre los topónimos.

Cuando el topónimo tenga una forma doble y ambas denominaciones sean muy parecidas, se utilizará la denominación en euskera.

Dicho uso se extenderá a todos los ámbitos de la Escuela: mapas del municipio, escritos, anuncios, avisos etc. que se generen en soporte físico o digital...

### Audio de las instalaciones

Los mensajes orales dirigidos a personas indeterminadas, comunicados por dispositivos con audio o medios similares, se emitirán primero en euskera y después en castellano. Cuando el nivel de comprensión o características de las personas receptoras lo permita se realizarán en euskera.

Si se pone música, al menos la mitad será en euskera, y si se trata de un espacio o actividad dirigida a niños/as y adolescentes, ésta será, en general, en euskera.

### Publicaciones, anuncios y publicidad

Todas las publicaciones que se hagan soporte físico o digital de revistas, libros, mapas, planos, anuncios, publicidad, audiovisuales, etc. se harán en euskera o en las dos lenguas oficiales, de acuerdo con las medidas para destacar el euskera establecidas en el Apartado II de los Criterios Específicos. Cuando las características específicas, del carácter de las publicaciones y de las personas receptoras (edad, competencia lingüística, sector...) lo requieran, se harán en euskera.

En cuanto a su difusión, los anuncios, la publicidad y las campañas en los medios de comunicación en euskera se publicarán o se darán a conocer en dicha lengua. Cuando se realice en territorios en los que el euskera no es oficial o lengua propia, además de la lengua autóctona, se utilizará el euskera para poner de manifiesto nuestra lengua propia.

Cuando además de las dos lenguas oficiales, también haya que utilizar otras lenguas en las publicaciones, se seguirá este orden: euskera, castellano, francés e inglés.

En las campañas publicitarias los mensajes y eslóganes no se traducirán literalmente de una lengua a la otra, sino que serán eslóganes creados en cada una de las lenguas. Se hará constar expresamente esta condición en los pliegos de condiciones de la contratación.

Además de esos criterios generales, dependiendo del acto comunicativo (publicidad oral y escrita, carteles, pósteres, folletos, cuadernillos, etc.), se seguirá lo establecido en el Apartado II de los Criterios Específicos.

### Actos institucionales

En los actos institucionales y eventos externos se



ekitaldien sistematikoki eta diseinu fasetik hartuko da kontuan hizkuntzen kudeaketa. Horretarako, hizkuntza irizpide hauek beteko dira:

- Ekitaldi instituzionalen (prentsurreko, sari banaketa, aurkezpen, jardunaldi, herritarrekin egindako bilera eta abarretan), euskara edo bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, bigarren kasu honetan euskara modu ikusgarriagoan erabiliz.
- Euskaraz egingo dira ulermenaren bermatuta dagoenean edo hartzaleen ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean.
- Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direnean, hizkuntzen arteko oreka bermatzea izango da irizpide nagusia. Egoerak ahalbidetzen duenean, hizkuntza bakoitzean eduki berak ez errepikatzera joko da; horretarako, hizkuntza bakoitzari eskainitako denboran edo testu kopuruan oreka kontuan hartzeaz gain, edukien banaketa ere oreaktuko da.
- Bi hizkuntza ofizialez gain, ekitaldien aurkezpenak beste hizkuntzetan ere egitea beharrezko denean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa, inglesa eta gainerako hizkuntzak.
- Prentsurrekoak ematerakoan, Eskolako kargu edo ordezkarien batek ez badu behar besteko hizkuntza gaitasunik euskaraz kazetariek adierazitakoa ulertzeko eta erantzuteko neurri egokiak hartuko dira komunikazio instituzionala herritarrei bi hizkuntza ofizialetan helarazten zaiela bermatzeko.
- Ekitaldiaren edo jardueraren izaerak aldibereko interpretazioa eskatzen duenean, aldez aurretik ongi zehaztuko dira interpretazioan izango diren hizkuntzak, eta interpretazio lana egiteko behar diren baliabideez hornitutako areto bat prestatuko da.
- Komunikaziorako teknologiek ematen dituzten aukerak baliatuko dira euskararen erabilera bermatzeko; esaterako, ahozko zuzeneko komunikazioan hizkuntza bat erabiltzea eta euskal informatikoan, berriz, bestea. Banatu beharreko dokumentazioa (prentsa oharrak, egitarauak....) euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan banatuko da, Irizpide Zehatzen II. atalean adierazitako euskara nabarmentzeko neurrien arabera.
- Ekitaldietan, zerbaiti buruzko gogoetak edo ekarpenak egiteko lantaldeak sortu behar badira, erakunde antolatzaileak sustatu egingo du euskal hiztunek euskaraz parte hartzeko aukera izatea.

## Webguneak eta sare sozialak

### Webguneak

Internet, sare sozial eta mugikorretako aplikazioetako edukiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko eta izapideak egiteko moduan egongo dira.

Webgunearen hasierako orria, era lehenetsian, euskarazkoa izango da. Orri horretan ikusgai egongo

tendrá en cuenta el uso de las lenguas desde la fase de diseño. Para ello, se seguirán los siguientes criterios:

- En los actos institucionales (ruedas de prensa, entrega de premios, presentaciones, jornadas, reuniones con la ciudadanía, etc.) se utilizará el euskera o las dos lenguas oficiales, en este segundo caso, dando un lugar más visible al euskera.
- Se realizarán en euskera cuando la comprensión esté garantizada o las características de las personas destinatarias así lo permitan.
- En los actos bilingües se garantizará el equilibrio entre ambas lenguas. Cuando la situación lo permita, se tenderá a no repetir los mismos contenidos en las dos lenguas y para lograr un reparto equilibrado se tomará en cuenta, además de la extensión o duración del discurso en cada lengua, la importancia de los contenidos.
- Cuando sea necesario realizar presentaciones o actos en otras lenguas, se utilizará el siguiente orden: euskera, castellano, francés, inglés y otras lenguas.
- En las ruedas de prensa, en caso de que alguno de los cargos o representantes de la Escuela no tenga la capacidad lingüística suficiente para comprender y responder en euskera a las preguntas de los medios, se adoptarán las medidas oportunas para garantizar que la comunicación institucional se traslade a la ciudadanía en las dos lenguas oficiales.
- Cuando la naturaleza del acto o actividad requiera interpretación simultánea, se especificarán previamente los idiomas en los que se desarrollará la interpretación y se habilitará una sala dotada de los medios necesarios para ello.
- Se utilizarán las herramientas que ofrecen las tecnologías de la comunicación para garantizar el uso del euskera, por ejemplo, el uso de una lengua en la comunicación oral directa y la otra en soporte informático. La documentación (notas de prensa, programas...) se distribuirá en euskera o en las dos lenguas oficiales, de acuerdo con las medidas para destacar el euskera establecidas en el Apartado II de los Criterios Específicos.
- En el caso de que en los actos se vayan a crear grupos de trabajo para reflexionar o realizar aportaciones sobre algo, la entidad organizadora promoverá que las personas euskaldunes puedan participar en euskera.

### Páginas web y redes sociales

#### Páginas web

Los contenidos de Internet, las redes sociales y las aplicaciones de los teléfonos móviles estarán disponibles en euskera o en euskera y castellano para su consulta y para la realización de trámites.

La lengua inicial de la página web será el euskera y se dispondrá de la opción de seleccionar la versión



da edukiak gaztelaniaz eskuratzeko esteka, eta, hala badagokio, ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuen estekak ere.

Eskolaren erantzukizunpeko dokumentuak Internetetik kontsultatu ahal direnean, euskaraz eta gaztelaniaz eskaini beharko dira. Hala ere, jasotzaileak euskal hiztunak direnean, euskara hutsean zabaldu ahalko da.

Webguneetan URL helbideak euskarazko hitzez eratuak izan behar dira. Internet edo intraneten bidezko izapideak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin ahal izatea bermatuko da.

Euskarazko orriean txertatzen diren estekak, aukera dagoen guztietau, euskarazko orrieta bideratuko dira. Era berean, erantsitako dokumentuen izenak eta edukia euskaraz idatziko dira.

### Sare sozialak

Sare sozialetako kontu elebidunetan, testua mezu bakarrean doanean, euskaraz gainean idatziko da; eta bi mezutan doanean lehenik gaztelaniazko mezua idatziko da, eta, jarraian, euskarazkoa, euskarazkoa aurretik bistaratu dadin.

Kanpoko gaztelaniazko mezu bat gure kontuan txertatzen dugunean, euskarazko aurkezpen hitzak gehituko dira.

### Mugikorretarako APPak

Eskolaren mugikorretarako aplikazioak (APP) bi hizkuntza ofizialetan egongo dira. Euskara aukeratuz gero, komunikazio eta agiri oro (e-mailak, fakturak...) euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan bidaliko dira (ikus xehetasun gehiago Irizpide Zehatzen IV. atalean).

### Helbide elektronikoak

Helbide elektronikoak euskarazko hitzez eratuak izan behar dira, eta euskaraz izendatuko dira helbide elektronikoen multzoak.

#### 2.1.2. Herritarrekiko harremanak

##### Herritarrekiko harremanak, ahoz

Euskara eta gaztelania izango dira herritarrei zerbitzua emateko hizkuntzak Musika eta Dantza Eskolaren atal, jarduera, ekimen eta bulego fisiko nahiz birtual guztietai. Herritarrekiko harreman mota guztietai bermatuko da bi hizkuntza ofizialen erabilera, haien hizkuntza hautua ziurtatzeko. Langileek ez dute eskumenik herritarrei eskatzen hizkuntza batean edo bestean jarduteko.

Harrera hizkuntza euskara izango da eta herritarrek aukeratutako hizkuntzan jarraituko da, bai telefonoz, bai aurrez aurre.

Herritarrek euskaraz hitz egiten badio euskaraz ez

en castellano y, en su caso, en otros idiomas.

Cuando la documentación bajo responsabilidad de la Escuela se pueda consultar desde Internet, se deberá ofrecer en euskera y castellano. No obstante, cuando las personas destinatarias sean euskaldunes, podrá difundirse exclusivamente en euskera.

En los sitios web, las direcciones URL deberán componerse de palabras en euskera. En lo que respecta a la tramitación a través de Internet o de intranet, se garantizará que esos trámites se puedan hacer tanto en euskera como en castellano.

Los enlaces insertados en las páginas en euskera se dirigirán, siempre que sea posible, a las páginas en euskera. Asimismo, los nombres y el contenido de los documentos anexos se escribirán en euskera.

##### Redes sociales

En las cuentas bilingües de las redes sociales, cuando el texto vaya en un solo mensaje, el euskera se escribirá en la parte superior; y cuando vaya en dos mensajes se escribirá primero el mensaje en castellano y a continuación en euskera, a fin de que el euskera se muestre en primer lugar.

Cuando se inserte un mensaje externo en castellano en nuestra cuenta, se le añadirán unas palabras de introducción en euskera.

##### APPs para móviles

Las aplicaciones (APP) para móviles de la Escuela tendrán que estar disponibles en las dos lenguas oficiales. En caso de que se seleccione el euskera, todas las comunicaciones y documentos (e-mails, facturas...) se enviarán en euskera o en las dos lenguas oficiales (ver más detalles en el Apartado IV de los Criterios Específicos).

##### Direcciones de correo electrónico

Las direcciones de correo electrónico se crearán en euskera y se asignarán nombres en euskera a los grupos de correo electrónico.

#### 2.1.2. Comunicaciones con la ciudadanía

##### Relaciones verbales con la ciudadanía

El euskera y el castellano serán las lenguas de servicio a la ciudadanía en todos los departamentos, actividades, iniciativas y oficinas físicas y virtuales de la Escuela de Música y Danza. Se garantizará el uso de las dos lenguas oficiales en todo tipo de relaciones con la ciudadanía. El personal no podrá exigir a la ciudadanía que se exprese en una u otra lengua.

La primera lengua de atención será el euskera y se continuará en la lengua elegida por la ciudadanía, tanto por teléfono como en persona.

En el caso de que un ciudadano o ciudadana se dirija



dakien langile bati, edota euskaraz jardun nahi duela adierazten badio, langile horrek bere erabilera planak zehaztutako protokoloa jarraituko du, eta lankide elebidun baten lagunza eskatuko du, herritarraren eskubidea bermatze aldera.

Harrera egiteko erabiltzen diren ahozko mezuak (gailu automatikoz, telefono bidezko informazio zerbitzuen bidez eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera zehatz horretan.

#### **Herritarreko harremanak, idatziz**

Herritarrei zuzendutako idatzi oro euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira (ebazpenak, matrikula agiriak, komunikazioak...).

Eskolan jasotzen diren idatziei erantzun behar zaienean, honela jokatuko da:

- Harremana euskaraz nahi duenari, edota dokumentuak euskaraz igorri dituenari, euskaraz erantzungo zaio.
- Ele bietan jasotako komunikazioei, ele bietan erantzungo zaie.
- Gaztelaniaz jasotako komunikazioei, oro har, bi hizkuntza ofizialetan erantzungo zaie

Komunikazio telematikoari dagokionez (eskaerak, izen-estateak, hitzordua, kexak, ...), herritarrauk aukeratutako hizkuntza erabiltzeko aukera izatea bermatuko da. Nolanahi ere, tramitazioaren azken jakinarazpen, eba zinifikazioa testu estandarizatua denean, sistemak aukera emango dio herritarri agiri elebidunak ere jasotzeko.

#### **Herritarrentzako eskolak, emanaldiak eta jarduerak**

Musika eta Dantza Eskolak herritarrei zuzendutako eskoletan, emanaldietan eta jardueretan (ikastaro, lantegi, jardunaldi, hitzaldi, erakusketa eta abarretan) euskara sustatzeko neurriak hartuko dira:

##### **a) Eskolak**

Hezkuntza Eskaintzan, irakasgai eta talde bakoitzaren hizkuntza ondorengo irizpideen arabera identifikatuko da:

**Euskaraz:** Ikaslearekiko harremana, azalpenak, eta material originalak (eta kopia direnen artean, ahal dena) euskaraz izango dira.

**Gaztelaniaz:** Ikaslearekiko harremana ikasleak nahi duen hizkuntzan egingo da (bermatu daitekeen neurrian), azalpenak eta material originalak (eta kopia direnen artean, ahal dena) gaztelaniaz izango dira.

**Ele bietan:** Harremana, ikasle bakoitzak nahi duen hizkuntzan egingo da. Irakaslearen azalpenak bi

en euskera a algún empleado o empleada que no lo sepa, o manifieste su deseo de hacerlo, el empleado o empleada solicitará la colaboración del personal bilingüe.

Los mensajes orales que se utilicen para la recepción de llamadas (mediante dispositivos automáticos, servicios de información telefónica, etc.) se emitirán en euskera y castellano, por este orden.

#### **Relaciones escritas con la ciudadanía**

Se redactarán en euskera o en euskera y castellano todos los documentos dirigidos a la ciudadanía (resoluciones, documentos de matrícula, comunicaciones...).

Los documentos que se reciban se responderán de la siguiente manera:

- Se responderá en euskera a quien deseé relacionarse en euskera o haya remitido los documentos en euskera.
- Las comunicaciones recibidas en bilingüe serán respondidas en ambas lenguas.
- Las comunicaciones recibidas en castellano se responderán, con carácter general, en las dos lenguas oficiales

En cuanto a la comunicación telemática (solicitudes, inscripciones, citas, quejas...), se garantizará que la ciudadanía pueda utilizar el idioma de su elección. En todo caso, cuando la última notificación, resolución o certificado de tramitación sea un texto estandarizado, el sistema permitirá a la ciudadanía recibir los documentos también en las dos lenguas.

#### **Clases, actuaciones y actividades dirigidas a la ciudadanía**

En las clases, actuaciones y actividades (cursos, talleres, jornadas, conferencias, exposiciones, etc.) dirigidas a la ciudadanía por la Escuela de Música y Danza se adoptarán medidas de fomento del euskera:

##### **a) Clases**

En la Oferta Educativa se identificará el idioma de cada asignatura o grupo de la siguiente manera:

**Euskaraz:** La relación con el profesorado, las explicaciones y el material original (y lo posible entre las copias) se serán en euskera.

**Gaztelaniaz:** La relación con el alumnado se desarrollará en la lengua que elija el alumnado (en la medida que pueda hacerse). Las explicaciones y materiales originales (y lo posible entre las copias) se entregarán en castellano

**Ele bietan (Bilingüe):** La relación será en la lengua que elija el alumnado. Las explicaciones e indicaciones



hizkuntzetakoek ulertzeko modukoak izango dira (irakasleak gelan azalduko ditu erabiliko dituen hitz edo aginduak ikasleren batentzat ezezagunak badira)

**Aukeran:** Ikasleak aukeratuko du bere saioaren hizkuntza. Material originalak ikasleak aukeratutako hizkuntzan eta kopia direnak ahal den neurrian

Orokorean, haur eta gazteentzako eskaintza euskaraz edo aukeran motakoa izango da.

Musika taldeen eskaintza euskaraz edo ele bietan motakoa izango da.

Irakasgai osagarriean, euskarazko talde bat bermatuko da, taldea sortzeko ikasle nahikoa badago.

#### b) Kontzertu eta emanaldiak

Eskolaren kontzertu eta emanaldien aurkezpenetan, agerraldi instituzionaletarako ezarritako hizkuntza irizpideak jarraituko dira.

Kontzertu eta emanaldietan euskarazko lanak sartzea sustatuko da.

#### c) Jarduerak

- Haur eta gazteei zuzendutako jarduerak euskaraz antolatuko dira. Publiko orokorrari zuzendutako jardueretan euskarazko eskaintza areagotzeko neurriak hartuko dira.

- Jarduera ele bietan egin arren, bi hizkuntzak saio bakarrean erabiltzen ez direnean, aukera hauek izango dira kontuan:

- Gutxienez saioen erdia euskaraz egingo da.
- Euskarazko saioa egun eta ordutegi egokian eskainiko da.

- Gaztelaniaz eskaintzen diren jardueretan, euskaraz ere egingo da aurkezpena, eta euskarazko sarrera egingo zaio ekitaldiaren atal bakoitzari. Ele bietan egingo dira jardueraren publizitatea eta jardueran banatzzen diren dokumentu idatziak.

- Ekitaldiak edo jarduerak zein hizkuntzatan izango diren zehaztuko da publizitate eta jakinarazpen guztietai.

### 2.2. Lan hizkuntza

#### 2.2.1. Barne harremanak

Musika eta Dantza Eskolaren barne-komunikazioetan eta Udalarekin dituenekin euskara erabiliko da modu orokorean eta normaltasunez, honako irizpide hauek kontuan hartuz.

#### Lan bilerak

se realizarán de manera que puedan ser comprendidas por todo el alumnado (el profesorado explicará en clase al alumnado las expresiones de uso habitual, si son desconocidas)

**Aukeran (a elección):** El alumnado elegirá el idioma de la relación y las explicaciones. Los materiales originales se entregarán en la lengua escogida por el alumnado, así como las copias en lo posible.

En general, la oferta para niños, niñas y jóvenes será del tipo euskaraz o aukeran.

La oferta de clases de agrupaciones musicales será del tipo euskaraz o ele bietan.

En las asignaturas complementarias, se garantizará la existencia de un grupo independiente en euskera, siempre que exista alumnado suficiente para su creación.

#### b) Conciertos y actuaciones

En las presentaciones de los conciertos y actuaciones de la Escuela, se seguirán los criterios lingüísticos establecidos para los actos institucionales.

Se promoverá la inclusión de obras en euskera en los conciertos y actuaciones.

#### c) Actividades

- Las actividades dirigidas a niñas, niños y jóvenes, se organizarán en euskera. Se adoptarán medidas para incrementar la oferta en euskera en las actividades dirigidas al público en general.

- Cuando la actividad sea bilingüe pero no se utilicen ambas lenguas en una misma sesión, se tendrán en cuenta las siguientes opciones

- Al menos la mitad de las sesiones se realizarán en euskera.
- La sesión en euskera se ofrecerá en día y horario adecuados.

- En las actividades que se oferten en castellano, la presentación se realizará también en euskera y se hará una introducción en euskera a cada uno de los apartados del evento. La publicidad de la actividad se hará en las dos lenguas, y los documentos escritos que se distribuyan en la misma también serán bilingües.

- En toda publicidad y notificación se especificará el idioma en el que se desarrollarán los actos o actividades.

#### 2.2. Lengua de trabajo

##### 2.2.1. Relaciones internas

En las comunicaciones internas de la Escuela de Música y Danza y las que mantenga con el Ayuntamiento se utilizará el euskera de forma general y habitual, siguiendo las siguientes pautas.

#### Reuniones de trabajo



## Lan bileretako ahozko harremanak

Bilerak euskaraz egingo dira orokorrean eta normaltasunez, parte hartzileen ulermenaren bermatuta dagoenean; hargatik eragotzi gabe gaztelaniaz erosoa go sentitzen diren parte hartzialeak hizkuntza horretan aritu ahal izatea.

## Lan bileretako idatziak

Bilera egindako hizkuntzan edo hizkuntzetan jasoko da bileraren akta.

Bileretako lan dokumentuak, ulermenaren bermatuta dagoenean, euskaraz idatziko dira.

## Udal barruko harremanak, ahoz

Langileen arteko ahozko harremanak ere Eskolaren hizkuntza paisaiaren parte dira, eragina duelako ikasleen, eta oro har, herritarren hizkuntza aukeran. Horren ondorioz, sustapen neurriak hartuko dira harreman horiek euskaraz izan daitezen.

Lanean ahozko harreman ez-formalak euskaraz izatea lagungarria da euskarazko zerbitzu hizkuntzaren kalitatea hobea izateko. Horren jakitun, laneko harremanak euskaraz izatea sustatuko du Eskolak.

## Udal barruko harremanak, idatziz

a) Barne harremanetarako idatziak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira eta laneko dokumentuen sortze hizkuntza euskara izan dadin sustatuko da.

b) Langile guztiei (hartzale jakinik gabe) bidalitako dokumentuak, mezuak, abisuak, jakinarazpenak, gutunak... bi hizkuntza ofizialean egingo dira, Irizpide Zehatzen II. atalean adierazitako euskara nabarmenzeko neurrien arabera. Langileen ulermenak ahalbidetzen duenean euskaraz egingo dira.

c) Eskolaren eta Udalaren euskarazko administrazio-unitateetara zuzendutako mezuak eta dokumentazioa euskaraz idatziko dira. Euskarazko administrazio-unitate batetik euskaraz sortutako dokumenturen bat jasotzen badu, hartzalearen ardura izango da hura itzultzeko bidaltzea eta, behar denean, erantzuna euskaraz bidaltzeko bitartekoak jartzea.

## Erakunde barruko prozedura administratiboak

a) Administrazio prozedurak, bai ofizioz hasitakoak bai interesdun batek edo batzuek eskatuta hasitakoak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz izapideztuko dira.

b) Nahiz eta erakunde barruko prozeduretan euskara erabili, dokumentuak eta lekukotzak interesdunen

## Relaciones verbales en reuniones de trabajo

La lengua de uso normal y general en las reuniones de trabajo será el euskera, cuando esté garantizada la comprensión de las personas participantes, sin perjuicio de que las personas que se sientan más cómodas interviniendo en castellano lo puedan hacer en dicha lengua.

## Documentación de reuniones de trabajo

El acta de la reunión se redactará en el idioma o idiomas en que se hayan llevado a cabo las intervenciones.

Los documentos de trabajo de las reuniones, cuando la comprensión esté garantizada, se redactarán en euskera.

## Comunicaciones verbales internas

Las conversaciones entre personas empleadas de la Escuela también forman parte del paisaje lingüístico, ya que es un factor que influye en la opción lingüística del alumnado, y general, de la ciudadanía. En consecuencia, se adoptarán medidas de fomento para que estas relaciones se realicen en euskera.

El uso del euskera en las relaciones informales en el trabajo contribuye a mejorar la calidad de la lengua de servicio en euskera. Consciente de ello, la Escuela promoverá el uso del euskera también en este ámbito.

## Relaciones internas por escrito

a) Las comunicaciones internas se redactarán en euskera o en euskera y castellano, promoviendo que el euskera sea la lengua de creación de los documentos de trabajo.

b) Los documentos, mensajes, avisos, notificaciones, correspondencia etc. enviados a todo el personal de la Escuela (sin destinatario concreto) se realizarán en las dos lenguas oficiales, de acuerdo con las medidas para destacar el euskera establecidas en el Apartado II de los Criterios Específicos. Cuando el nivel de comprensión de los destinatarios lo permita se realizarán en euskera.

c) Los mensajes y documentación dirigidos a las unidades administrativas en euskera de la Escuela y el Ayuntamiento se redactarán en esta lengua. Si una persona recibe un documento de una unidad administrativa en euskera, redactado en euskera, será su responsabilidad enviarlo a traducir y, cuando corresponda, poner los recursos necesarios para enviar la respuesta en euskera.

## Procedimientos administrativos internos

a) Los procedimientos administrativos, tanto los iniciados de oficio como los iniciados a instancia de una o varias personas interesadas, se tramitarán en euskera o en euskera y castellano.

b) Cuando se utilice el euskera en los procedimientos internos, los documentos y testimonios se remitirán a



hizkuntza aukeraren arabera bidaliko zaizkie interesunei, alegia, euskaraz edo ele bietan. Hizkuntza aukera jaso gabe dagoenean, ele bietan bidaliko zaizkie.

### Erregistroa

Sarrera erregistroaren aplikazioan, hizkuntzari buruzko eremu bat dago, nahitaez bete beharrekoa. Bertan jasoko da herritarrok eskabidean erabilitako hizkuntza (euskaraz, ele bietan edo gaztelaniaz).

### Lanari lotutako hizkuntza paisaia

Lanari lotutako errotulazioa (apal, artxibategi, karpeta eta abarretan jartzen diren etiketak ...), noizbehinkako oharak, tresneria (afe makinak, fotokopiagailuak...), lan arriskuekin eta ingurumenarekin lotutako euskarriak... euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.

### Informaziorako eta komunikaziorako tresnak

Eskolak kudeatutako komunikazio tresnekin (emaila, intraneta....) egiten diren barne komunikazio orokorrak (zirkularak, ohar eta iragarki taulak, etab.) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Ulermen mailak ahalbidetzen duenean, euskaraz egingo dira.

Intranetaren edukiak jasotzeko hasierako orria, era lehenetsian, euskarazkoa izango da.

Langileek barne izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan (aplikazioak, inprimakiak, etab.), izapide horiek bi hizkuntza ofizialetan egiteko modua egongo da. Baliabide horiek egokitutu euskarazko administrazio-unitatekoek eta 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek izapideak euskaraz egin ditzaten.

### 2.2.2. Kanpo-harremanak

#### Sektore Publikoko erakundeekiko harremanak

##### Sektore Publikoko erakundeekiko harremanak, ahoz

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako herri administrazioekiko (Estatukoak barne), nahiz euskara ofiziala edo berezko hizkuntza den lurraldetako administrazioekiko ahozko harremanak normaltasunez eta orokorrean euskaraz izango dira, aukera dagoen guztietan. Langileek proaktibotasunez jokatuko dute, lehen hitza euskaraz eginez.

##### Sektore Publikoko erakundeekiko harremanak, idatziz

Aipaturiko administrazioekiko idatzizko harremanetan ere normaltasunez eta orokorrean euskaraz sortu eta bideratuko da dokumentazioa, aukera dagoen

las personas interesadas en función de su opción lingüística, es decir, en euskera o en ambas lenguas. Cuando no conste opción lingüística, se enviarán en ambas lenguas.

### Registro

En la aplicación de registro de entrada existe un campo obligatorio, en el que se especificará el idioma utilizado por la ciudadanía en la solicitud (eusker, bilingüe o castellano).

### Paisaje lingüístico ligado al trabajo

Los rótulos fijos relacionados con el trabajo (etiquetas colocadas en estanterías, archivadores, carpetas, etc.) las notas ocasionales, los rótulos y textos de máquinas (máquinas de café, fotocopiadoras...), los soportes relacionados con los riesgos laborales y el medio ambiente, etc. se redactarán en euskera o en euskera y castellano.

### Herramientas de información y comunicación

Las comunicaciones internas para todo el personal (circulares, notas y tablones de anuncios, etc.) transmitidas a través de las herramientas de comunicación que maneja la Escuela (email, intranet...) se realizarán en euskera o en euskera y castellano. Cuando el nivel de comprensión lo permita, se realizarán en euskera.

La página inicial de los contenidos de intranet será, por defecto, en euskera.

En los recursos informáticos que el personal tiene a su disposición para llevar a cabo los trámites internos (aplicaciones, impresos...), existirá la posibilidad de hacer dichos trámites en euskera o en castellano. Dichos recursos se adaptarán para que las personas de las unidades administrativas en euskera y el personal que tenga acreditado el perfil lingüístico 3 y 4 realicen los trámites en euskera.

### 2.2.2. Comunicaciones externas

#### Comunicaciones con entidades del Sector Público

##### Comunicaciones verbales con entidades del Sector Público

Las comunicaciones verbales con las administraciones públicas radicadas en la Comunidad Autónoma Vasca (incluida la administración del Estado) así como con las de territorios en los que el euskera sea oficial o lengua propia, se desarrollarán con normalidad y con carácter general en euskera, siempre que sea posible. El personal actuará de forma proactiva iniciando la conversación en euskera.

##### Comunicaciones escritas con entidades del Sector Público

En las comunicaciones escritas con las administraciones citadas, la documentación se creará y tramitará en euskera con normalidad y con



guztietan.

Herri administrazio horietatik jasotako euskarazko idatziei euskaraz erantzungo zaie. Idatzia ele bietan edo gaztelaniaz jaso bada, bi hizkuntza ofizialetan bideratuko da, eta, aukera dagoen guztietan, aurrerantzean komunikazioak euskaraz izateko eskaera egingo zaie.

Euskaraz egindako komunikazio horiek balio juridiko osoa dute, eta erakunde hartzaileak ezingo dio eskatu erakunde edo atal igorleari jatorrizko dokumentuaren itzulpena. Itzuli behar izatekotan, erakunde hartzailearen ardura izango da itzulpen hori.

#### **Entitate pribatuekin harremanak**

Hemen sartzen dira Eskolak kontratatutako enpresak, hornitzaleak, finantza erakundeak, erakunde kolaboratzaileak, zerbitzu erabiltzaileak eta abar.

#### Entitate pribatuekin harremanak, ahoz

Entitate pribatuekiko ahozko harremanak normaltasunez eta orokorean euskaraz izango dira, aukera dagoen guztietan. Langileek proaktibotasunez jokatuko dute, lehen hitza euskaraz eginez.

#### Entitate pribatuekin harremanak, idatziz

Eskolak harremana duen erakunde pribatuei idatziak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz bidaliko dizkie, oro har.

Erakunde horietatik jasotako idatzien erantzunei dagokienez, euskaraz idatzitako agiriena euskaraz erantzungo da. Idatzia ele bietan edo gaztelaniaz jaso bada, bi hizkuntza ofizialetan erantzungo da.

#### **2.2.3. Laneko prestakuntza orokorra**

Eskolak antolatutako ikastaroak euskaraz egingo dira, ahal den guztietan; horrela, neurriak hartuko dira, bere prestakuntza orokorraren barruan, euskarazko ikastaroen eskaintza areagotzeo modu progresiboan.

Laneko prestakuntza orokorreko ikastaroak euskaraz antolatzen direnean, 3. hizkuntza eskakizuna edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek euskaraz egingo dituzte. Moodle edo beste LMS bidez antolatutako ikastaroak 3. hizkuntza eskakizuna edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatutu dutenek euskaraz egin ditzaten konfiguratuko dira.

1. hizkuntza eskakizuna edo 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatutu duten langileek, ikastaroaren ezaugarrien arabera, euskaraz egin ditzaten sustatuko da. Kanpoko erakundeek (IVAP...) antolatutako prestakuntza ikastaroetan irizpide bera jarraituko da.

Ikastaroetan izena emateko erabiltzen diren tresna informatikoak eta bestelako bitarteko guztiak bi hizkuntza ofizialetan eskainiko dira.

carácter general, siempre que sea posible.

Las comunicaciones recibidas en euskera se responderán en esa misma lengua, y las redactadas en bilingüe o en castellano, se tramitarán en las dos lenguas oficiales, y siempre que sea posible, se les solicitará que las comunicaciones escritas sean en adelante en euskera.

Estas comunicaciones realizadas en euskera tienen plena validez jurídica y la entidad destinataria no podrá exigir al organismo o sección emisora la traducción del documento original. En caso de precisar su traducción, esta será responsabilidad de la entidad receptora.

#### **Relaciones con entidades privadas**

Se incluyen aquí empresas contratadas, proveedores, entidades financieras, entidades colaboradoras, personas usuarias de servicios, etc.

#### Relaciones verbales con entidades privadas

Las comunicaciones verbales con las entidades privadas se desarrollarán con normalidad y con carácter general en euskera, siempre que sea posible. El personal actuará de forma proactiva iniciando la conversación en euskera.

#### Relaciones escritas con entidades privadas

La Escuela remitirá, con carácter general, en euskera o en euskera y castellano los documentos dirigidos a las entidades privadas con las que se relaciona.

Las comunicaciones escritas en euskera recibidas de estas entidades, se responderán en euskera. Si el escrito se ha recibido en ambas lenguas o en castellano, se responderá en las dos lenguas oficiales.

#### **2.2.3. Formación laboral general**

Los cursos de formación organizados por la Escuela se realizarán en euskera siempre que sea posible; por lo tanto, se adoptarán medidas para incrementar de forma progresiva la oferta de cursos en euskera, dentro de su plan de formación.

Cuando se ofertan cursos en euskera, el personal que tenga acreditado el PL3 o PL4 realizará los cursos en dicha lengua. Los cursos organizados a través de Moodle u otros LMS, se configurarán para que el personal que haya acreditado el PL3 o PL4 los realice en euskera.

Asimismo, se fomentará que el personal que tenga acreditado el PL1 o PL2 realice los cursos en euskera, en función de las características de los cursos. Se aplicará el mismo criterio para los cursos organizados por otras entidades (IVAP...)

Las herramientas informáticas y otros medios utilizados para la inscripción en los cursos se ofrecerán en las dos lenguas oficiales.



Ikastaroen kudeaketan (ikastaro eskaintza, eskabideak, txostenak, parte hartzaleei buruzko datuak...) beti adieraziko da hizkuntza aldagaia.

#### 2.2.4. Baliabide informatikoak

Eskolako zerbitzuetan erabiltzeko diren programa, aplikazio, datu base eta tresna informatikoak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan erabiltzeko prestatuko dira (ikus neurriak Irizpide Zehatzen IV. Atalean).

Programa, aplikazio, datu-base edo tresnen euskarazko bertsioa instalatuko zaie 2. hizkuntza eskakizuna eta handik gorako euskara maila egiaztatuta duten langileei.

Sistema eragileak eguneratzen diren bakoitzean euskarazko bertsioa ezarri dela egiazatuko da. Software estandarra instalatzeko eskaerak dauden bakoitzean, aztertu egingo da euskarazko bertsioak eskuragarri dauden, eta horiek instalatuko dira.

Eskola arduratuko da, DonostiaTIKekin elkarlanean, irizpide horiek betetzeaz.

#### 2.2.5. Sortze-hizkuntza

Oro har, euskarazko administrazio-unitateetan laneko dokumentuak euskaraz sortuko dira. Halaber, gainerako ataletan, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langile guztiak laneko testuak euskaraz sortzea bultzatuko da.

Horrelakoetan, langileren batek testua euskaraz sortzeko garaian lagunza behar badu (pasarte korapilatsuak idazteko lagunza, euskaraz idatzitakoa zuzentzea...) Euskara Zerbitzura jo ahal izango du. (Ikus Irizpide Zehatzen III. atala)

Dokumentuak bi hizkuntzetan egin behar direnean, teknologiak eskaintzen dituen baliabideak (itzultzai automatikoak) erabili ahal izango dira, baina funtsezkoa da testuak norberak berrikustea eta, beharrezkoa denean, zuzenketak egitea. Iza ere, itzultzai automatikoaren erabiltzaileak izango dira sortu dituzten testuen erantzuleak.

#### 2.2.6. Itzulpen irizpideak

Musika eta Dantza Eskolak era arrazionalizatuan erabiliko ditu itzulpengintza- eta interpretazio-zerbitzuak.

Idatzi bat bi hizkuntza ofizialetan egin behar denean, ez da sistematikoki itzulpen zerbitzura joko. Eredu normalizatuak egonez gero, horiek lehentasunez erabiliko dira, eta, bestela, langileen hizkuntza gaitasunaren arabera jokatuko da, ondoren ezarritakoari jarraituz:

En la gestión de los cursos (oferta de cursos, solicitudes, informes, datos de participantes...) siempre se indicará la variable del idioma.

#### 2.2.4. Recursos informáticos

Los programas, aplicaciones, bases de datos y herramientas informáticas que se vayan a utilizar en los servicios de la Escuela estarán dispuestas para su uso en euskera o en las dos lenguas oficiales (ver medidas en el Apartado IV de los Criterios Específicos).

Al personal que haya acreditado el PL2 o un perfil superior, se le instalarán las herramientas, programas y aplicaciones informáticas en euskera.

Siempre que se actualicen los sistemas operativos, se comprobará que queda instalada la versión en euskera. Cuando se solicite la instalación de software estándar, se analizará la disponibilidad de versiones en euskera y se instalará en euskera si existen en esta versión.

La Escuela en colaboración con DonostiaTIK, será la encargada de cumplir dichos criterios.

#### 2.2.5. Lengua de creación

Como norma general, en las unidades administrativas en euskera, los documentos de trabajo se crearán en euskera. Asimismo, en las demás unidades, se impulsará la creación de textos de trabajo en euskera por parte de todo el personal que tenga acreditado el perfil lingüístico correspondiente.

En estos casos, si algún trabajador o trabajadora necesita ayuda a la hora de crear el texto en euskera (ayuda para escribir pasajes complicados, corrección de lo escrito en euskera...) podrá dirigirse al Servicio de Euskera. (Ver apartado III de los Criterios Específicos).

Cuando se trate de documentos bilingües, se podrán utilizar los recursos que ofrece la tecnología (traductores automáticos), pero es fundamental que los textos sean revisados por la propia persona y, cuando sea necesario, sean corregidos. De hecho, las personas usuarias de la traducción automática serán las responsables directas de los textos que hayan generado.

#### 2.2.6 Criterios de traducción

La Escuela de Música y Danza utilizará racionalmente los servicios de traducción e interpretación.

Cuando un escrito deba realizarse en las dos lenguas oficiales, no se acudirá sistemáticamente al servicio de traducción. En el caso de que existan modelos normalizados, se utilizarán éstos preferentemente y, en caso contrario, se actuará en función de la competencia lingüística del personal, de acuerdo con lo establecido a continuación:



a) Langileak dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duenean edo egiaztatu gabe ere gaitasuna duenean:

- Testu laburak edo dagoeneko itzulitako moldaketak bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz, sortuko ditu. Testuen zuzentasuna ziurtatze aldera, behar duenean, Euskara Zerbitzuaren zuzenketa zerbitzuaz baliatu ahal izango da.

- Testu luze berriak, euskaraz sortu eta itzulpen zerbitzura bidaliko ditu, behar izanez gero, gaztelaniara itzultzeko. Itzulpen eskaera guztiengarten artean euskaratik gaztelaniarako horiek dute lehentasuna. (Ikus zuzentzera bidaltzeko testuek bete behar dituzten baldintzak Irizpide Zehatzen III. atalean)

b) Langileak dagokion hizkuntza eskakizuna gainditu gabe duenean eta gaitasunik ez duenean:

- Itzulpen Atalera itzultzera bidaliko ditu herritarrei orokorrean, enpresei edo beste herri administrazioei zuzendutako testuak, baita barruko txostenak ere, kanpora doazen baimen edo jakinarazpenetan txertatu behar badira. (Ikus itzultzera bidaltzeko testuek bete behar dituzten baldintzak Irizpide Zehatzen III. atalean)

- Kanpotik jasotzen dituen euskarazko idazki guztiak ez ditu, besterik gabe, itzultzera bidaliko. Agiria ulertzen ez badu, bere zuzendaritzan horretarako izendatutako langileari edo hizkuntza normalizatzaleari eskatuko dio lagunza, edukia ahoz azaltzeko edo idatziz laburpen bat ejiteko.

Nolanahi ere, euskara hutsez jasotako testu jakin bat ez itzultzeak interesatuari kalteren bat eragin diezaiokeelean, testu hori itzultzera joko da.

### Interpretazio zerbitzua

Erakunde autonomoaren gobernu organoen bileretan kide guztiengaten aldetik euskarazko ulemerena bermatuta ez dagoenean eskatuko da interpretazio zerbitzua. Ikus interpretazio zerbitzua erabiltzeko bete behar diren baldintzak Irizpide Zehatzen III. Atalean.

a) Cuando la o el trabajador tenga acreditado el perfil lingüístico correspondiente o cuando, aun en caso contrario, tenga competencia suficiente:

- Creará textos breves o adaptaciones de los ya traducidos en ambas lenguas, euskera y castellano. Para asegurar la corrección de los textos, cuando sea necesario, se podrá utilizar el servicio de corrección del Servicio de Euskera.

- Los textos extensos de nueva creación, los creará en euskera y en caso de ser necesario los enviará al servicio de traducción para traducirlos al castellano. Tendrán prioridad los textos que tengan que ser traducidos del euskera al castellano (Ver requisitos que deben cumplir los textos que se vayan a enviar para su corrección en el apartado III de los Criterios Específicos).

b) Cuando el empleado o empleada no haya superado el perfil lingüístico correspondiente y no tenga capacidad lingüística suficiente:

- Remitirá a la Sección de Traducción los textos dirigidos a la ciudadanía en general, empresas u otras Administraciones Públicas, así como informes internos que deban incorporarse a autorizaciones o comunicaciones dirigidas al exterior. (Ver requisitos que deben cumplir los textos para enviar a traducir en el apartado III de Criterios Específicos)

- No enviará a traducir de modo sistemático todos los escritos que reciba del exterior en euskera. En el caso de que no entienda el documento, solicitará la colaboración de la persona designada al efecto en su Departamento o del normalizador o normalizadora lingüística, para la exposición oral de su contenido o para la realización de un resumen por escrito.

No obstante, cuando la no traducción de un texto recibido únicamente en euskera pueda causar algún perjuicio a la persona interesada, este texto será traducido.

### Servicio de interpretación

Se solicitará servicio de interpretación en aquellas reuniones de los órganos de gobierno del organismo autónomo en los que no esté garantizada la comprensión de euskera por parte de sus miembros. Ver requisitos que se deben cumplir para solicitar el servicio de interpretación en el apartado III de los Criterios Específicos.



## IRIZPIDE ZEHATZAK

### I. EUSKARAZKO ADMINISTRAZIO-UNITATEAK

Euskarazko administrazio-unitateek nahiz gainerako zuzendaritzek haiekiko komunikazioetan hizkuntza irizpide hauek bete beharko dituzte:

#### A) EUSKARAZKO ADMINISTRAZIO-UNITATEETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Euskara izango da lan eta harreman hizkuntza nagusia, bai idatzian bai ahozkoan.
- Lanarekin lotutako errotuluak euskaraz idatziko dira.
- Euskara izango da atal hauetako laneko bileren hizkuntza eta bileren akta euskaraz jasoko da.
